


EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Hernanin EA-EAJk irabazi du botoen % 37rekin

■ EH da Hernanin bigarren indarra botoen % 29rekin eta PSE-EE hirugarrena %15,18rekin ■ Parte hartzea % 76,67 izan da Hernanin.



Biterin jendea botoa emateko ilaran zain.

HAUTESKUNDEETAN Eusko Autonomi Erkidegoko egoera beretsua eman da Hernanin

EAJ-EA izan da lehengo 2.842 botoetatik 4.366ra pasata. Bigarren indarra EH da; lehen 4633 zituen, orain berriz, 3402. Hirugarren indarra PSE-EE da lehengo 1657 botoetatik 1806 botoetara igota. Lauga-rren PP 1081etik 1456ra pasata; eta bostgarrena IU 518 bototik 672ra igota.

PARTE HARTZE HAUNDIA
Abstentzioa %23,33koa izan da Hernaniko kasuan. Inoiz baino jende gehiagok eman du botoa beraz, seguru asko jokuan Legebiltzarra baino zerbait gehiago zegoela pentsatuta.

Gaurtik aurrera ikusiko dugu hala ere zein joera hartzen duen hain gogorra izan den kanpainaren emaitzak. □

FAMILIA ETA PREBENTZIOA

Gurasoen arteko topaketak Inmaculada, Elizatxo eta Urumean

■ Maiatzaren 15 (bihar), 22 eta 29an izango dira ■ Honekin bukatuko dira ikasturteko jardunaldiak.

HERNANIKO Ongintza Patronatuak jardunaldiak eta tailerrak antolatu ditu kurtso osoan zehar *Familia eta prebentzioa* gaiaren inguruan. Azken hiru jardunaldiak (ikastetxe bakoitzean hiru) maiatzan izango dira.

HIRU IKASTETXETAN

Inmaculadan *Familian nola edukatu (mugak, agresibitatea, sexualitatea...)* gaia jorratuko dute Garbiñe Merinorekin. Orduak: 14:45etan eta 16:15etan.

Elizatxon *Ikasi familian entzuten eta entzunak izaten* gaia landuko dute. Hizlariak Marian Aizpurua eta Marian Mendiola izango dira. Orduak: 19:30etan eta 21:00etan.

Urumean *Familian hezita arazoak nola konpondu* ikasiko dute. Txus Congilek emango ditu hitzaldiak. Orduak: 14:45etan eta 16:15etan.

Edozein guraso azaldu liteke jardunaldietara, ikastetxekoak izan ala ez. □

'Molotov' kontrainformazio aldizkariaren aurkezpena


■ Aldizkaria berri zela urte bete da aurtan ■ Aurkezpena bihar, Tilosetan, arratsaldeko 19:30etan.

'MOLOTOV' Madrilén egin eta estatu guztian zabaltzen den kontrainformazio aldizkaria da. Urtebete da proiektua zabaldu eta aldizkari itxurorosoago bat egin zutena; orain aitzakia horretan, aurkezpenak egiten ari dira.

INFORMAZIO SAREA

Informazio iturriekin sarea sortzen ari dira *Molotov*-ekoak. Horretarako herri mugimenduen datuak behar dituzte. Biharko aurkezpena Hernaniko taldeen datuak hartzeko ere aprobetxatu nahi dute. □

Eusko Jaurlaritzako legebiltzarkideak



BOTOAK AUZOZ AUZO

	URTEA	Alde Zaharra	Hirigunea	Etxeberri	Labunbe	Lizeaga	Portu	Zikuñaga	Ereñotzu	Jauregi	Orkolaga	Elizatxo	Florida	Antziola	Mariekuts	GUZTIRA
EAJ-EA	1994	113	528	219	159	148	149	139	90	313	116	149	164	122	0	2.409
	1998	96	551	282	269	159	159	153	102	326	167	161	150	129	124	2.828
	2001	142	762	425	420	233	250	272	174	506	203	269	264	186	260	4.366
EH	1994	184	602	325	226	167	193	235	244	318	149	260	268	130	0	3.301
	1998	251	767	449	404	205	246	335	274	412	232	300	355	197	206	4.633
	2001	197	559	317	305	173	156	243	232	290	157	241	259	120	153	3.402
PSE	1994	39	130	148	162	184	115	108	1	71	123	72	144	114	0	1.411
	1998	27	82	180	277	178	134	117	0	62	134	73	166	133	44	1.607
	2001	24	159	198	352	164	154	115	1	63	112	83	173	151	57	1.806
PP	1994	11	81	52	59	64	30	34	10	45	32	41	41	21	0	521
	1998	26	145	103	172	101	89	64	6	66	74	66	69	55	45	1.081
	2001	27	175	137	251	145	103	83	9	91	118	67	93	93	64	1.456
IU	1994	20	63	95	70	53	96	66	8	30	55	40	35	44	0	675
	1998	11	53	76	73	39	64	39	2	16	40	15	39	38	13	518
	2001	21	99	81	94	35	56	34	11	34	47	40	52	30	38	672
PH	2001															23
ASKAT.	2001															8
EKA	2001															4

ABSTENTZIOA

1994 % 43,38

1998 % 31,44

2001 % 23,33

* Datu ez ofizialak

Garbitzaileen greba luzerako joango da itxura guztien arabera

■ Langile eta patronalaren arteko negoziazioetan ez da aldaketarik izan ■ Ikaste-txeetako zerbitzu minimoak lehengoan jarraitzen dute.



Kiroldegiko dutxak, gero eta zikinago.

APIRILAREN 23a ezkerotzik Gipuzkoa osoko 1.500 garbitzaile greban daude, enpresei lan baldintza hobeak eskatzeko. Hernanin EULEN enpresako 24 langile dira greban daudenak; horren ondorioz Hernaniko kiroldegia itxita dago (gar-

bitasun neurri minimoak ez betetzeagatik), eta beste zenbait tokitan (udala, musika eskola...) asko nabaritzen dira ondorioak.

ALDAKETA GUTXI

Patronala eta langileen arteko negoziazioek berean diraute.

Sindikatuak pare bat proposamen luzatu omen dizkiote patronalari, baina, ezezko erantzuna jaso dute. Langileak aurrera jarraitzeko asmotan dira, eta inork ez daki noiz arte luzatuko den auzia.

UDALEKO KOMITEAREN ELKARTASUNA

Udaleko enpresa komiteak bi puntuko idatzi bat onartu zuen maiatzaren 4ko bileran:

1) Garbiketa zerbitzuko langileei elkartasuna azaltzen diete, “konbenio justu bat lortzeko daramaten borrokan”. Egoeraren erantzule bakarra patronala dela iritzita.

2) “Dirua aurrezteko argudioekin” Udal eta Eskoletako garbiketa lanetan eman den pribatizazioa salatzen dute.

Azkenik, Hernaniko udaletxeari beharrezko pausoak eman ditzala eskatzen diote, “horrelako egoerak berriro ez suertatzeko”. □

■ MUS TXAPELKETAK

Aralar tabernan final-hamaseirenetan dira

XALAPARTA ELKARTEA

Errepeskako partidak jokatuko dira Xalapartan aste honetan:

Maiatzak 15, asteartea:

Gabi-Gerardo / Doval-Etxarri
Ramon-Peli / Joakin-Amancio

Maiatzak 16, asteazkena:

Zabala-Zabala / Julio-Alcelay
Justo-Javi / Martin-Iñaki
Felis-Nemesio / (aurreko partidako galtzaileak)
Zulaika-Uria libre geratu dira

STA BARBARA ELKARTEA

Saillkapen faseak jarraitzen du. Partidak:

Maiatzak 15, asteartea:

Txarli-Iñaki /Osanbela-Zubillaga

Iñigo-Jokin / Mikel-Olazar

Zelarain Felipe /Juan Bautista-Jokin
Mauri-Txanpi / Teo-XX

Aranaiz-Fernando / Aita-Jose Luis
Sesma-Kaki / Martiarena-Julio

Maiatzak 17, osteguna

Aitor-Ibon / Helio-Joseba
Erdozia-Antonio / Loinaz-Rincon
Manu-Josetxo / P.Valle-Alvaro
Pako-Gabriel / Xaxi-Carlos
Javi-Rafa / Satur-Xabier
Gabi-Ramon / Pablo-Josetxo

ARALAR TABERNA

Aralarren final-hamaseirenak jokatuko dira. Partidak:

Maiatzak 14, astelehenaIñaki-Martin /Iñaki-Julian

Joseba-Inaxio /Pablo-Josetxo

Americano-Aitor /Montxi-Juan Luis
Koldo-Txuria /Joxe-Kije

Maiatzak 15, asteartea:

Txema-Manolo /Manolo-Jexux
Jon-Greñas /Joserra-Luis
Javi-Txomin /Fernando-Bixente

Josu-Gorka / Pako-Pantxo

Maiatzak 16, asteazkena

Roberto-Joxe /Iñaki-Alex
Aitor-Alvaro /Intxaurre-Intxaurre.

Manu-Pitxi / Aitor-Peli

Ketus-Pako / Goñi-Bilbao

Maiatzak 17, osteguna

Goñi-Antonio / Andoni-Ricar
Axier-Joxe /Javier-Pello
Kolonbo-Txema /Jexux-Felix

Mati-Manu /Xarpa-Mitxelena

ASTEBURUKO PARTIDUAK

■ FUTBOLA

3. maila

Alaves 2 -Hernani 1

Emakumezkoen Kopa

Dunboa - Hernani

Gorengoan maila

Hernani 1 - Anaitasuna 6

Gazteen Ohorezko Liga

Hernani 3 -San Marcial 3

Gazteen 2.maila

Hernani -Lazkao

Kadeteen ohorezko liga

Ilintxa 1 - Hernani 5

Kadeteen 2. maila

Zumaiaiko 0 -Hernani 1

Haurren ohorezko liga

Real Union 0 - Hernani 2

■ **ERRUGBIA**

Estatuko Txapelketa. Kadeteak

Tarazonan

1.partidua

Hernani 5 -Moraleja

22Alcobendas

2. partidua

Hernani 0-Helios CAU 25

3.partidu

Hernani 3 -Universidad

Sevilla 24

7.eta 8. postua

Hernani 5- ? 32

■ HITZ BITAN



Hernaniko arraunlariak aurreko proba batean.

✓ **ARRAUNA (GIPUZKOAKO LIGA)**

Orion 14garren eta Mutrikun 10garren. Asteburu polita egin dute hernaniko mutilek trainerilatan. Larunbatean Oriok egurra eman zuen eta hernanikoek 14garren postuarekin konformatu behar izan zuten, 44 segundu atzeragotik sartuta. Atzo, berriz, Donibanek irabazi zuen, eta hernaniarrak, aldeko haizea aprobetxatuta, 10garren gelditu ziren, 38 segundora. Saillkapen nagusian 12garrenera igo dira. Liga datorren asteburuan bukatuko da Getariko proban. Larunbatean klasifikatoriak izango dira eta igandean finala.

✓ **MENDIRIZ MENDI**

Maiatzaren 26 eta 27rako Abodiko mendi zerrara irteera. Gaztetxoentzako irteera egingo dute Mendiriz Menditik maiatza bukaeran. Larunbatean irten eta igandean dute buelta; lotarako zakua ereman behar da beraz. Izena emateko Mendiriz Menditik pasa hilaren 24a baino lehen. Orduetgia: astelehen, ostegun eta ostiralean arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara.Prezioa: gaztetxoentzat 3.000 pta eta helduentzat 5.000 pta.

✓ **ERRUGBIA**

Kadeteak 8. estatuko txapelketan. Hernaniarrek lehen faseko 3 partidua galdu egin zituzten, eta 7. eta 8. postuko partidua jokatu behar izan zuten. Hau ere galdu egin zuten eta 8.postuarekin itzuliko dira Tarazonatik. Hernaniarrak oso gazteak dira, eta mutil haundiago eta indartsuagoen aurka jokatu behar izan dute.

✓ **‘MARIELUTS’ HAURTZAINDEGIA**

Gaur da izena emateko azken eguna. Datorren ikas-turterako izen ematea zabalik da Marielutsen maiatzaren lehen egunetik. Bi urte arteko haurrak bertan sartu nahi dituenak gaur du udaletxean izena emateko azken eguna.



Ume guraso eta irakaslea, Marielutsen.

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40etan: M. Jesus Jauregi sendagile naturistak errezetak emango ditu. 12:00etan: Eaeo hauteskundeen emaitzen inguruko irratiaoa 12:40etan: Luis Mari Zalduarekin, Hernani eta Lasarte arteko mugetan.

ZERBITZUAK

☎ **TELEFONOAK**

►Taxiak:
943 550093
►Udaltzaingoa:
943 333288
►DYA:
943 464622
►Anbulatorioa:
943 557750
►Jokalarari anonimoak
943 331103

✚ **FARMAZIAK**

►Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
►Gauetz: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

✚ **ASTEARTEA**

►Egunez: Irigoyen
Elkano 2
☎ 943 552087

►Gauetz: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933

✚ **ASTEAZKENA**

►Egunez: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933
►Gauetz: Sagastiberri
Urbietia 7
☎ 943 552941



Plaza Berria 2 - Tel. 943.554461
Faxa: 943.555903

Zuri zerbitzu hobia emateko lekuz aldatu gara.

Orain **Plaza Berria 2** an aurkituko gaituzu.

HALCON BIDAIAK
Plaza Berria 2 - Tel. 943.554461

Zure Publizitatea

Hernaniko Kronikan

☎ 943 330899



Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxe 943 55 11 30



Nagusia 51
Tel. 943 551 322
20120 HERNANI